

II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## HARANeko UDALA

**Sandra Cengotitabengoa Elizondo praktiketako langile lan kontratudun finko izendatzea, Haraneko Udaleko administrari plazan**

Aztertu da Haraneko Udaleko administrari plaza oposizio-lehiaketa bidez egonkortzeko salbuespenezko hautaketa prozesuaren barruan betetzeko bideratutako espedientea.

Alkatearen 2022ko abenduaren 14ko Dekretuaren bidez (ALHAO, 147 zk., 2022ko abenduaren 23koa), Haraneko Udalerako administrari plaza baten oinarri orokorrak eta espezifikoak eta aldi baterako enplegua oposizio-lehiaketa bidez egonkortzeko prozesua arautzen duen deialdia onetsi ziren.

Administrari plaza bat egonkortzeko salbuespenezko hautaketa prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda jasotzen duen iragarkia ALHAOn (123. zk.a, 2024ko urriaren 28koa) argitaratu zen.

AZTERTU DA epaimahai kalifikatzaileak 2025eko urtarrilaren 2an egindako akta. Bertan, 2022ko enplegu publikoaren eskaintzan sartutako administrari plaza bat egonkortzeko salbuespenezko hautaketa prozesuan parte hartu zutenek lortutako behin betiko puntuazioak ezartzen dira. Hona hemen puntuak:

IZEN-ABIZENAK	NANA	OPOSIZIO FASEKO PUNTUAZIOA	LEHIAKETA FASEKO PUNTUAZIOA	GUZTIRA
SANDRA CENGOTITABENGOA ELIZONDO	***4447**	59,00	37,82	96,82
PABLO ECHART SAN SEBASTIAN	***4899**	45,50	10,00	55,50
AMAIA CASTAÑOS LIZ	***5055**	46,50	0,00	46,50

Bat etorri abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2.1 artikulua onduko aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorren 18. apartatuan ezarritakoarekin, 3 hilabeteko praktikaldia ezartzen da.

Bat etorri Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 h) artikuluan xedatutakoarekin, honako hau

## EBAZTEN DUT

LEHENENGOA.- Sandra Cengotitabengoa Elizondo Haraneko Udaleko administrari plaza-rako praktikaldiko langile lan kontratudun izendatzea. Izendapen honek dekretu honen dataren hurrengo egun baliodunetik aurrera izango ditu administrazio ondorioak.

BIGARRENA.- Ana M<sup>o</sup> Beltran de Heredia Arroniz andrea tutore izendatzea.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau ALHAOn eta udal honen egoitza elektronikoko iragarki taulan argitaratzeko agintzea.

LAUGARRENA.- Ebazpen honen berri ematea hurrengo osoko bilkuran.

Alda, 2025eko otsailaren 12a

Alkatea  
LARRAITZ WALIÑO ARANA